


ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2024ko irailak 13 · 1324 zenbakia



PARIS 2024

BENETAKO KIROL ESPIRITUAREN IKUR

2024-25 IKASTURTEA

**EIBARKO UDAL
EUSKALTEGIA**

**MATRIKULA
ZABALIK**


Irailaren 27ra arte




Bista Eder, 10 - PORTALEA

euskaltegia@eibar.eus



 943 700 912

 688 698 566



EIBARKO AEK EUSKALTEGIA

aek
euskara praktikoa

Euskara
eroso
bizitzeko

2024-25 EUSKARA
IKASTAROAK

**MATRIKULA
ZABALIK**

irailaren 30era arte!

Maila guztietao ikastaroak:

A1,A2,B1,B2,C1,C2

(goizez, eguerdian nahiz arratsaldez)

- AURREZ AURREKO ikastaroak
- Ikastaro ERDI PRESENTZIALAK (autoikaskuntza)
- ONLINE ikastaroak
- C2 maila prestatzeko ikastaroa

DIRU-LAGUNTZA BERRIAK:

- C1 mailako ikastaroa (16-18 urtekoentzat) 40 euro
- A1 mailako ikastaroa (denentzat) 120 euro

Sostoa 1-1° solairua

943 20 13 79

eibar@aek.eus



MATRIKULA

Irailak 2tik aurrera

www.uni.eus



ESPEZIALIZAZIOAK

BERRIA

**BIDEO JOKOEN ETA ERREALITATE
BIRTUALAREN GARAPENA**

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Herriko euskaltegiak prest daude ikasturte berriari hasiera emateko. Geroz eta eskaintza zabalagoa dute eta, herriko kolektibo estrategikoei deskontuak emateaz gain, A1 eta C1 mailako ikasleek ere matrikularengatik gutxiago ordaintzeko aukera izango dute.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ander Romarate

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Jaiak herri osoarenak eta herri osoarentzako dira

Larunbat gauetz EAJ-PNVren txosna erasotu zuten Arraten: pinturaz “Guri baino garestiago aterako zaizue” pintatu dute. Jeltzaleen kontrako erasoa eta sozialisten kontrakoa (bata bestearen aurrean zeuden) ordu berean eman zen.

EAJ-PNVren Eibarko Uri Buru Batzarrak egileari eta bere inguruari adierazi nahi die jaiak herri osoarenak eta herri osoarentzako direla, eta beren eraso koldarrekin ez dutela EAJ-PNV isilaraziko. Izan ere, EAJk 125 urte daramatza euskal aberriaren alde lanean bide demokratikoetatik eta totalitario guztiei aurre egiten. Herri osoari bere ordezkaritza lapurtu eta haren izenean hitz eginez erasotzen duena faxista hutsa da.

Igandean alderdikide eta alderdizale jeltzaleak edariak eta janaria zerbitzatzen aritu dira, bukatu arte. Horrek ondo erakusten du Eibarko herriak ekimenari emandako harrera. “Bakar batzuek ez gaituzte hemen nahi, baina ez dute lortuko. Itzuliko gara. Datorren urtean ere txosna jarriko dugu Arraten, batzuek uste arren zelaia beraiena dela. Eta berriro ere egingo dugu elkarteren bati laguntzeko, 2014tik hona egin dugun bezala”.

EAJ-PNVren txosnaren irabazi guztiak Eibarko Egoaizia GKEarentzako izango dira aurten, garapenerako lankidetzarako. Aurreko edizioetan osasun arloan diharduten elkarteak lagundu izan diete.

Bukatzeko, EAJ-PNVk EH Bilduri hertsatuki eskatzen dio ezbaierik gabe kondena ditzala EAJren eta PSEren txosnen kontrako erasoak eta, hala, Sortuko gazteei argi eta garbi esan diezaietela horrelako jokabideak iraganeko kontuak izan behar direla.

Eibarko EAJ-PNV

Hortik esanak



Gazteengana iristea kostatzen bada ere, informazioa dutenek ondo erantzuten dute. Gipuzkoan, 18 eta 24 urteko gazteen artean, ehun biztanletik zortzi emakume dira odol-emaileak, eta gizonak, sei. Adin guztiak kontuan hartuta, ehun biztanleko ez gara hiru emailera iristen. Beraz, proportzioan, gazteek odol gehiago ematen dute helduek baino. 24 urtetik 30 edo 35 urte artera arte egoten da etena; jendeak utzi egiten dio adin horretan odola emateari, baina gero berriro hasten dira. Egia esan, ez dut uste arazorik izango dugunik hurrengo belaunaldia odol emaile izateko.

SABIN URZELAI, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarte

Kapitalismoak festibal guztiak irentsi ditu, parerik gabeko jatuntasanarekin. Badira eszenategiak bertan Ibex 35 erdia dutenak: Iberdrola, Idealista edo Banco Santander-en barrutiek hartuta. Kultur eta kirol aktibitate guztien onuradun sektore horretara doaz irabazi guztiak, ondoren logelak edo paellak saltzeko. Ostalaritza arloko soldatarik ez dago jaldietako sarrera eta prezioen mailan igo direnak. Festibal horiek, azken batean, mende honetako garagardo-enpresetako negozio bihurtu dira; euren babesik gabe asko ez lirakeke existituko. Sarrera bat ordaintzen duzu, baina azkenean diru gehiago lagatzen duzu jaten eta edaten. Hor duzu musika eta garagardoaren arteko batzbesteko balioa.

NANDO CRUZ, kazetaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PARRA → Berdinduta, ados. “Eguenian egin bihar ei dittue notarixakuak eta... Bost milloik ekartzia dakez, eta parra!”.

PARRA EGIN → Jokuan, tratuan edo negozio baten, ez galdu ez irabazi. “Jokuan parra egittia be ez dok gitxi”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

- BARIXAKUA 13**
- EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)
- ZAPATUA 14**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- DOMEKA 15**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
- ASTELEHENA 16**
- EGUNEZ | Iraundegi** (Calbeton, 19)
- MARTITZENA 17**
- EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
- EGUAZTENA 18**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- EGUENA 19**
- EGUNEZ | Zulueta** (San Agustín, 5)
- BARIXAKUA 20**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)

- GAUEZ BETI, 2024an,**
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Jose Luis Errasti Aretxabaleta.** 67 urte. 2024-09-01.
- **Elena Albeniz Arrieta.** 89 urte. 2024-09-04.
- **Mari Carmen Bolunburu Aizpiri.** 103 urte. 2024-09-06.
- **Carmen Sebastian Gaya.** 93 urte. 2024-09-07.
- **Luis De la Peña Rubio.** 96 urte. 2024-09-07.
- **Maria Txurruka Urbieta.** 90 urte. 2024-09-09.
- **Maria Jesus Sola Arco.** 90 urte. 2024-09-10.



Kofradia eta Baserritar jubilatuen egunak agurtuko ditu Arrateko Amaren jaiak

Asteburuan Arrateko Amaren eguna ederki ospatu eta gero, domekan agurtuko ditugu aurtengo jaiak, Kofradia eta Baserritar Erretiratuen Egunerako antolatutako programarekin. Eibarko Klub Deportibotik 10:30ean abiatuko den Simon Aldazabal XXIX. Lasterketarekin hasiko da eguna. Ondoren, 11:00etan Meza Nagusia ospatuko da santutegian, bertsolarien parte-hartzearekin,

eta jarraian prozesioa hasiko da, Usartza Txistulari Bandak lagunduta. Eguerdiko 12:00etan, berriz, Udalak antolatutako paella-lehiaketa hasiko da, eta sariak 14:00etan banatuko dituzte. Eta, amaitzeko, 17:30etik aurrera idi-probak jokatuko dira, hiru idi-pareekin: Soarte (Elgoibar), Iker Zubillaga "Igeldo" (Ezkio-Itsaso) eta Eibarko Vicente Areta "Mendigoiitti".

Eibarko Baso Biziak elkartekok 1,5 hektarea erosi dituzte Kaminburun

Altamira eta Azurtza artean dagoen Kaminburun 1,5 hektarea erosi ditu Eibarko Baso Biziak elkarteak. Elkartetik pozik daude lortutakoarekin, eta bere esker ona azaldu nahi diete hori posible egiten lagundu duten guztiei. Gaur egun lursailak erosteko aukerak ailegatzen ari zaizkiela helarazi nahi diete Eibarko erakunde eta enpresei, "Eibarrentzat baso autoktonoa nahi badugu, orain

dela horiek erosteko momentua, beste edonork erosi baino lehen" adierazita. Kaminburuko lur-saila erositako, Eibarko Baso Biziak elkarteak gure inguruko basoetako 35 hektarea zaintzen ditu gaur egun. Izan ere, Unben 11 hektarea ditu, Santutxun eta Igartuan 14 hektarea (Soraluzeko Baso Biziak eta Lurgaiarekin batera), eta Haritzbakarragan beste 8,5 hektarea.



1.196 zenbakiak irabazi du Arrateko jaietako zozketa

Sari gisa Tiro Pitxoi jatetxean bi lagunentzako bazkaria iragartzen saldu ziren rifen zozketan, zenbaki irabazlea 1.196 izan da, eta ordezkoa 1.035. Arrate egunean bertan egin zen zozketa, 20:30ean, eta Jaixak Herrixak Herrixandako-tik azaldu dutenez, "irabazleek lau hilabeteko epea dute sariaz gozatzeko, eta aurretik jatetxekoei abisatu behar-ko diete".



Domekan hasiko dira mezak ospatzen Azitainen

Domekan 10:30ean hasita eskainiko den mezarekin, ekingo diote ikasturte berriari Azitaingo Jaso-kunde parrokan. Bertan eskaintzen diren zerbitzu erlijioso eta mezen arduradunek diotenez, "domeka eta jaiegunetan emango diren meza guztiak 10:30ean hasiko dira".



On Ekin lehiaketaren edizio berria antolatu du Ekingunek

Gure eskualdeko enpresa eta ekingunetzaileen ekimenak sustatu eta bideratzeko asmoz, Ekingune elkarteak antolatzen duen On Ekin lehiaketaren XII. edizioa martxan dago. Aurreko astean egin zuten aurkezpena Jon Iraola alkateak, Vanesa Hortas Ekonomiarene Garapen, Enplegu eta Berrikuntzako zinegotziak eta Leticia Sanchez Ekingune elkartearen koordinatzaileak. Azaldutakoaren arabera, negozio-idea berritzaileak izan eta martxan jarri nahi dituzten ekingunetzaile eta enpresei zuzenduta dago lehiaketa, eta jende guztia parte hartzerantz animatu nahi dute antolatzaileak. Izen-ematea zabalik

dago eta urriaren 8ra arte egongo da izena emateko aukera, Ekingune elkartearen webgunean. Lehiaketari buruzko xehetasunak ere bertan kontsultatu daitezke.

Aurreko edizioetara bezala, finalistek beraien proiektuak jendearenean aurkeztuko dituzte, urriaren 17an Errebal Plazan egingo den ekitaldi berezi batean, eta horretan parte hartu nahi dutenek aipatutako helbidean eman dezakete izena.

Lehiaketa parte hartzen dutenen artean bi sari banatuko dira: epaimahai batek hautatuko duen On Ekin Saria (Laboral Kutxak finantzatuko duen 2.000 euroko saria); eta Errebalen egingo den

ekitaldira bertaratzen direnek aukeratuko duten herri-saria (Udalak finantzatutako 1.000 euroko saria, gehi ekitaldirako sarreraren salmentari esker batzen duten kopuruaren zati bat).

Adimen artifizialari buruzko prestakuntza-saioa

Lehiaketarekin batera, Ekingunek adimen artifizialari buruzko prestakuntza-saioa antolatu du eguenerako (irailak 19). Gaian aditua den Imanol Teranek emango du saioa, Armeria Eskolan, 09:00etatik 13:00era, eta parte hartu nahi duenak Ekinguneren webgunean eman dezake izena. Saio teorikoa izango da eta, antolatzaileen berbetan, "formakuntza honek zure negozioan berehala aplikatzeko moduko tresna praktikoa eta esku-ragarriak eskainiko dizkizu". Ez da esperientziarik behar.



eskolara buelta!

elite

ISASI kalea, 29

Eskola-materiala, papertegia, motxilak, idazmahaiak, aulkiak...

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS 943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es



Laneratzea erraztea helburu duen 'Lanera Bideratuz' programa abiatu dute

Armeria Eskola Elkartek, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailaren laguntzarekin, langabetuei zuzendutako gizarteratze eta laneratze programaren edizio berri bat abiatu du. Lanera Bideratuz izeneko programarekin parte hartzen dutenen laneratzea erraztu nahi dute, "lanmerkatuan sartzen laguntzeko behar diren tresnak, baliabideak eta trebetasunak emanez. Gainera, parte hartzaileen eskura jarriko da inguruko enpresetara hurbiltzeko aukera. Era berean, zuzenean ezagutu ahal izango dituzte enpresek kontrata-

tzerakoan bilatzen dituzten trebetasunak eta gaitasunak". Programak hainbat fase dauzka: lan-orientazioa (banakakoa eta taldekoa), garapen pertsonala, inguruko enpresetara hurbiltzea, eta laneratzea.

Formakuntza honek bi hilabeteko iraupena dauka (urritik azarora), eta parte-hartzea dohainik da. Izena emateko epea urriaren 11n amaituko da. Informazio gehiagorako edo/eta izena emateko 633 90 93 88 telefono zenbakira deitu daiteke, edo elkarte@armeriaeskola.eus helbidera mezua bidali (Kontaktua: Eider Vicente).

Urriaren 11ra arte bidali daitezke "Gure Balioak" Sarietarako hautagaitzak

Debegesa Debabarreneko Garapen Agentziak antolatzen dituen "Gure Balioak" Sariak bueltan dira. Bi urtetik behin antolatu ohi diren arren, pandemiaren eraginez azken edizioa 2019koa izan zen. Bestetik, aurtun, berrikuntza gisa, *Bizitza osoko ibilbidea* kategoriari *Gazte ekimena* eta *Gizarte ekimena* gehi-

tuko zaizkio. Hautagaitza guztiak Debegesako web orrian (www.debegesa.eus) eskura dagoen formularioa eta kasu bakoitzean eskatzen diren betekizunak betez aurkeztu beharko dira. Zalantzak argitzeko marketing@debegesa.eus helbidera idatzi edota 943 820 110 telefonora deitu daiteke.

Welcome Oporretan ekitaldiak girotuko du bihar Amaña

Amaña es la Caña elkarteak biharko hainbat ekitaldi antolatu ditu, oporren ostean auzoa girotzeko asmoz. Aurreko urteetan bezala, jaiari Welcome Oporretan izena jarri diote, eta eibartar guztiak gonbidatuta daude. Goizetik hasiko dira jarduerak: 11:00etan gaztelu puzgarriak, kartak (automobilak) eta musika egongo dira; eta, 16:00etatik aurrera, haurrentzako parkea, gaztelu puzgarriak eta eskobatzeko makina. Ondoren, 17:00etan, Bihar Taldearen txotxongilo-ikuskizuna; 18:00etan umeentzako txokolate-jana; eta 18:30ean "Aitxitxa/ama-ma eta biloba" patata-tortilla lehia-keta (izen-ematea Amesti tabernan, gaur da azken eguna). Amaitzeko, 21:00etatik aurrera diskoteka egongo da, DJ baten eskutik.



Jabetza Eskolako matrikula egiteko aukera dago

Jabetza Eskolako udazkeneko ikas-tarotetan aurrematrikula egiteko epea irailaren 25ean amaituko da. Eskaintza osoa Udalaren zein Andretxearen webguneetan kontsultatu daiteke, eta aurrematrikulak ere bertan dagoen formularioa beteta egin daitezke (nahi izanez gero, formularioa Andretxean betetzeko aukera ere badago).



Irailaren 22an egingo da erabilitako bizikleten azoka Untzagan

Eibarko Udalak, Ingurumen Sailaren bitartez, Europako Mugikortasunaren Astearekin (SEM) bat egingo du aurten ere, irailaren 22an, Kotxerik Gabeko Nazioarteko egunean, egingo diren hainbat jarduerarekin. Egun horretan bizikleten eta mugikortasun jasagarriarekin lotutako objektuen bigarren eskuko azoka egingo da Untzagan, 10:00etik 14:00etara, eta azokan parte hartzeko eta bizikletak edota bestelako objektuak bertan salgai ipintzeko ezinbestekoa da aurretik izena ematea edo hitzordua eskatzea, www.merkabi.eus/eibar estekaren bidez, edo 943 67 02 49 telefonoaren bidez. Parte-hartzea doakoa da. Bestalde, goizean, azokaren ondoan, ohi bezala, bizikletak konpontzeko tailer bat ere egingo da Eibarko Klub Deportiboak antolatuta, eta arratsalderako bideheziketarako zirkuitua eta ginkana, haurrentzat.



Astelehenean itzuliko dira Untzagara pentsiodunen asteroko elkarretaratzeak

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko talde gehienek bezala, Eibarko Pentsiodunen Taldeak ere atsedean hartu du udan, eta oporren ostean indarberrituta itzuli dira. Datorren astelehenean hasita, aurrerantzean astero egingo dute kontzentrazioa, 12:00etan Untzagan. Pentsiodunek diotenez, “bi hilabete hauetan zenbait herritako jarduerak ez du atsedetik izan. Bilbon, adibidez, manifestazio garrantzitsua egin zen abuztuaren 19an, Kantabriako zenbait herritako pentsiodunak bertan zirela. Kontzentrazio gabeko bi hilabete hauek energia kargatzeko eta lan egiteko eta erantzuteko modu berriak aztertzeke balio behar digute, baita pentsiodunen eskaerak eguneratzeko ere. Bada garaia Gasteizko Go-

bernuak pentsiodunen mugimenduen proposamena onartzeko, eta eskatzen den ponentzia abian jartzeko. 1.080 euroko gutxieneko pentsioa partida espezifiko batekin bermatzeko ordua da, harik eta Madrilgo gobernuak onartu arte”.

Irailaren 16tik aurrera aldarrikapen historikoak izango dituzte mahai gainean: “Eta, pentsiodunak garen aldetik, zuzenean eragiten diguten gai guztiek kezkatzen gaituzte, batez ere osasun publikoaren egoerak eta pribatizazio-planek, baita egoitzetako langileek etengabe salatzen dituzten gabeziek ere”. Bizi-kalitate txukuna lortzeko bide bakarra mobilizazioa dela berretsi nahi dute, “eta, jakina, garrantzitsua da gizarte osoaren inplikazioa”.

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus

leku berri bat

Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

Hartu hitza euskara eroso bizitzeko

Info +
BIDEOAN

Ikasturte berria hastear da herriko euskaltegietan. Eibar euskalduntzen berebiziko lana egiten dute AEK-k eta Udal Euskaltegiak, eta dagoeneko prest dira gure hizkuntzaren ezagutza eta erabilpena herritarren artean gehiago zabaltzeko. Herriko euskaltegi bietan izan gara bakoitzean eskaintzen dena zuzenean ezagutzeko eta, guri gertatu zaigun bezala, herritarrek ere ateak zabalik aurkituko dituzte.

Matrikulatze-epea zabalik dagoenez, euskaltegiek kanpaina berriak hasi dituzte herritarrek euskara ikasi, hobetu edo gehiago erabiltzera animatzeko. Aurten 40 urte beteko dituen Udal Euskaltegiaren kasuan 'Hartu hitza' leloa aukeratu dute oraingo kanpainarako. "Helburuak beti dira berdinak (guregana hurbiltzen diren herritarrek euskalduntzea, euskaraz trebatzea...), baina aurten beste helburu bat nabarmentzen dugu: euskararen erabilera bultzatzea", azaldu digu Arantza Iriondo Udal Euskaltegiko arduradunak. "Ikasle hasi berriak zein maila bat dutenak euskara erabiltzera animatzeko ordua da. Lotsak uxatu, beldurrak kendu eta animatu hitz batzuk behintzat euskaraz egitera", gehitu du Iriondok.

AEK euskaltegiak 'Euskara eroso bizitzeko' leloa erabili du ikasturte berriaren kanpainan. "Hain zuzen ere, gure helburua herrita-

EUSKARA IKASTAROAK
CURSOS DE EUSKERA

LANGABETU, JUBILATU, IKASLE, GURASO, MERKATARI ETA OSTALARIAK
Personas desempleadas y jubiladas, estudiantes, padres y madres, comercio y hostelería

ERDI PREZIOA
50%

MAILA GUZTIAK ETA ORDUTEGI ZABALA
TODOS LOS NIVELES Y AMPLIO HORARIO

Etortri eta galdetu!
Udal Euskaltegia
PORTALEA Bista Eder, 10-2
943 70 09 12 euskaltegia@eibar.eu

¡Ven a informarte!
AEK Euskaltegia
Sotboa-Tarren kalea, 1
943 20 13 79 / eibar@eak.eus

rrak euskaraz eroso bizitzea da. Euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzen dugu eta horretarako ematen ditugu ikastaroak euskaltegian”, esan digu Eibarko AEK-ko Jone Olaizolak. “Ikasleak euskaltegian eroso egon daitezen nahi dugu, talde giro jatorrean eta konfiantzazko giroan irakaslea bidelagun izanda, baina euskaltegitik kanpo ere ikasleak euskaraz eroso bizitzea nahiko genuke, familian, lagun artean, lantokian, aisialdian... euskaraz egin dezaten”.

Aukera ugari

Aipatutako helburuak lortu nahian, euskaltegi eskaintza zabal jarri dute herritarren eskura. Horrela, maila guztietan matrikula egiteko aukera dago, A1 mailatik hasita C2 mailaraino, eta horrez gain mintzapraktika saioak, azterketak prestatzeko aukerak eta bestelako ekintzak antolatzen dituzte.

Artikulu honen lehen orriari dagoen QRa eskaneatuz gero euskaltegi bakoitzaren eskaintza zehatza ezagutzeko aukera duzue, baina asko sakondu gabe ere esan dezakegu ikastaroak zenbait modutan egin daitezkeela: aurrez aurre, autoikaskuntzaren bitartez, online...

Ordutegiari dagokionez ere, edozein herritarren ordutegira egokitzten diren aukerak aurkitu ditzaiegu euskaltegi bietan (goizean, eguerdian, arratsaldean... moldatu daitezkeen ordutegiekin). Horrela, interesa izanez gero, ez dago aitzakiarik euskaltegietan izena ez emateko.




AEK-ko eta Udal Euskaltegioko kideek euren eskaintzaren berri eman digute. EKHI BELAR

>>> Herriko euskaltegiak ikasturte berriaren matrikula-kanpaina hasi dute

Kolektibo estrategikoentzako deskontuak

Eibarko Udalak, Udal Euskaltegiarekin eta AEK-rekin lankidetzan, kolektibo estrategikoak euskalduntzeko baldintza bereziak eskaintzen ditu. Artikuluaren lehen orrialdeko kartelean ikusi daitekeen bezala, kolektibo horietako kideek matrikularen erdia bakarrik ordaindu beharko dute Udal Euskaltegian edo AEK-n matrikulatzen direnean.

Kolektibo estrategikoak hauek dira: 12 urte artekoen gurasoak,



Matrikula-kanpainak hasi dituzte AEK-k (ezkerrean) eta Udal Euskaltegiak (eskuinean).

16 urte beteak dituzten ikasleak, langabetuak, merkatariak eta os-talariak, eta 65 urte edo gehiagoko jubilatutakoak. Horrela, euskaltegiak kolektibo bakoitzaren beharretara egokitutako ikastaroak eskainiko dituzte.

Izena emateko, bestalde, honako baldintzak bete beharko dira: Eibarren erroldatuta egotea, eta klaseetara %85 edo gehiagoko asistentzia edukitzea.

Deskontu horrez gain, gainontzeko ikasleek ere badituzte matrikuletan gutxiago ordaintzeko beste aukera batzuk. Adibidez, diru-laguntza berri bat dago martxa A1 mailako ikastaroa egiteko. Horrela, aurten euskara ikasteko lehen pausoa ematen dutenek askoz ere merkeago edukiko dute matrikula. Iaz, C1 maila ikasteko diru-laguntza jarri zuten martxan 16-18 urtekoentzat eta aurten ere

>>> Euskara ikasteko edo hobetzeko aukera zabala eskaintzen da euskaltegi bietan

>>> Herriko kolektibo estrategikoez gain, A1 eta C1 mailako ikasleek deskontuak izango dituzte

aukera egongo da deskontu horretaz baliatzeko.

Izena emateko

AEK euskaltegian izena emateko epea irailaren 30ean amaituko da eta matrikula euskaltegian bertan (Sostoa kaleko 1. zenbakian), telefonoz (943 20 13 79) edo webgunearen bitartez (www.aek.eus) egin daiteke, eta informazio gehiago jasotzeko eibar@aec.eus helbide elektronikora idatzi edo X sare sozialetan [@eibarko_aek](https://twitter.com/eibarko_aek) kontuan kontsulta egin daiteke.

Udal Euskaltegian, bestalde, irailaren 27an amaituko da matrikulazio-epea, eta izena emateko, bertaratzeaz gain (Portalea eraikinaren 2. pisuan, Bista Eder kalean), 943 700 912 edo 688 698 566 telefonotara deitu edo WhatsApp bitartez idatzi, edo euskaltegia@eibar.eus helbidera idatzi daiteke.



Yolanda Barrutia Iñan

2024/09/09

Beti izango zara gure bihotzetan



- ZURE FAMILIA -

Lourdes Eguren Begiristain

2024/08/26

"Gure bihotzian egongo zara betirako. Maitte zaittugu"

ESKERRIK ASKO momentu gogor hauetan gure onduan egon zareten danori.



- ETXEKUAK -

Eleobel Alonso Gutierrez "Patxi"

1. URTEURRENA
2023/09/18

Beti izango zara gure Ipar Haizea



- ZURE FAMILIA -



Maria Angeles Arenaza Garitaonandia


1. URTEURRENA
2023/08/31

"Betirako gure bihotzetan"

BERE ALDEKO MEZA egingo da irailaren 15ean, 12:00etan, Karmelitetan.




- SENARRA TA SENDIA -



Luis Jesus Ramos Aizpurua

7. URTEURRENA
2017/09/14

"Beti zurekin, beti gurekin. MAITE ZAITUGU"



- ETXEKUAK -




24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Elbar: Otaola, 27</p> <p>Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Kaxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16</p>
---	---

Elbar - Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leloa - Getxo - Sestao
Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao

“Bakarrizketetatik kanpo ere pertsona umoretsua naiz, hori da nire izaera eta umoreak asko lagundu dit”

BARRY MANLEY • Bakarrizketaria



Barry Manley Irlandan jaio zen, Cork hirian hain zuzen ere, baina Euskal Herrian darama bizitzen bere bizitzaren erdia baino gehiago. Euskaldun peto-pettoa izan arren, irlandar nortasunari eusten dio eta dikotomia horretatik abiatzen da Arrate Kultur Elkartearen, hilaren 18an, 19:00etan, eskainiko duen bakarrizketa: “Irlandar eta euskaldun”.

Manleyrentzat ez da lehen aldia Eibarren. Orain dela 12 urte, Irlandako ipuin-kontalarien antzera ibili zen hara eta hona eta gurean geldialdia egin zuen. Berarekin egoteko aprobetxatu genuen eta sasoi hartan izan genuen berriketaldia gogoratu dugu.

Orain dela 12 urte egin genizun elkarrizketan esan zenuen jendearen aurrean aritzea droga zela zuretzat. Droga ezin lagata zabilta?

Ez nik bakarrik, askotan entzuten duzu antzeko zerbaitekin. Jendaurrean aritzea droga izatea, tira, orain gutxiago da niretzat. Zorionez gauza asko egin ditut 12 urte hauetan, eta gaur egun nire euskara askoz hobea da eta erosoago sentitzen naiz jende aurrean. Dena dela, orain hausnarketa momentu batean nago, zaila delako bakarrizketekin aurrera egitea. Batetik, autonomia izanda, legegari dagokionez gauzak gero eta zailagoak dira. Eta bestetik, iaz gaixotasun kronikoa atzeman zidaten, minbizia. Sendatu naiz, orain ondo nago, eta eszenatoki gainera itzultzeko gogoak asko lagundu zidan prozesu horretan.

Minbizia izateak nola eragin dizu bakarleri eta pertsona moduan?

Egun bakoitza opari bat izango balitz bezala bizi dut orain. Badakit etorkizunean minbizia itzuliko dela, baina momentuz oso ondo nago. Egunero pare bat orduz ibiltzera joaten naiz, Donostian bizi naizenez itsasoan igeri egiten dut... Ezin naiz kexatu.

Umoreak lagundu dizu egoera horri aurre egiteko orduan?

Hori da nire bizitzeko modua eta bakarrizketetatik kanpo ere pertsona umoretsua naiz. Hori da nire izaera eta, bai, umoreak asko lagundu dit.

Euskaraz hobeto moldatzen zarela aipatu duzu, baina urte hauetan bakarrizketari moduan ere hobetu dizula nabari izan duzu?

Bai, eszenatoki gainean etengabe ikasten duzu. Euskal Herri osoan eszenatoki gainean egon ondoren ofizio berri bat ikasi dut. Euskal Herria txikia dela esaten dugu, baina Euskal Herri osoa margotzen saiatu. Oso handia da!

Bakarrizketari moduan euskaraz egin duzu ibilbidea. Ingelesez ez zara ibili?

Bakarrizketak ingelesez egiteko gai naiz eta egin izan ditut. Egunero hiru hizkuntzatan bizi naiz: gazteleraz, ingelesez eta euskaraz. Orain dela urte batzuk Eibarko Hizkuntza Eskolakoek bakarrizketa bat euskaraz eta



Barre egiteko aukerarik ez da faltako Barry Manleyrekin

ingelesez egitea eskatu zidaten, eta gustora egin nuen. Nire herrian ere, Corken, bakarrizketa bat ingelesez egin nuen, baina ez da gauza bera bakarrizketa bat ingelesez Corken edo Eibarren egitea, testuinguru ezberdinak dituztelako. Zorionez toki biak ezagutzen ditut soberan, nahiz eta Irlandan aritzeak beldur gehiago ematen zidan, denbora asko daramadalako hemen bizitzen. Esan behar da, bestalde, hemengoan ingeles maila gero eta hobea dela.

Zure bizitzaren zatirik handiena Euskal Herrian daramazu...

Bizitzaren bi herenak! Kontzeptu berria da hori niretzat, lehen ez nuen ezagutzen. "Irlandar eta euskaldun" da ikuskizunaren izenburua, hori naizelako, irlandarra eta euskalduna, ez Euskal Herrikoa, ezin dut Athletic-en jokatu (barreak).

Beno, Athletic-eko jokalaria batzuek ez bezala, zuk euskaraz egiten duzu.

Bai, baina Realzalea naiz! Hori bai, lehenik eta behin Liverpool FC-ren zalea. Gainera, lehengusinarene semeak, Caoimhin Kelleher atezainak, Liverpoolen jokatu du. Martin Zubimendi Liverpoolen jokatu ikustea

nahiko nuke, baina tira. Liverpool asko jarraitzen dut, haurtzaroarekin konektatzen laguntzen dit.

Irlandar asko Liverpool FC-ren zaleak dira, ezta?

Bai, Liverpoolen edo Manchester Uniteden zaleak dira irlandar asko. Guk futbol gaelikoa dugu, gure herri-kirola izango balitz bezala, errugbian ere inoiz baino hobeto dabil selekzioa, baina Irlandako futbola gaizki antolatuta dago eta jokalaria onenek Ingalaterran jokatu dute. Kirolaren aldetik Ingalaterrarekin lotura estua dugu (euren telebista saioak ikusten ditugu, adibidez). Hori bai, orain dela egun batzuk 0-2 irabazi ziguten gaztetan Irlandarekin jokatu zuten Declan Rice eta Jack Grealishen golekina. 800 urtez Ingalaterraren menpe egon ondoren, orain hau. Jainkoa ez da existitzen! (barreak)

Umorerik ez zaizue falta behintzat!

Noski, zer egingo dugu ba?

Antzeman daiteke barreak ez direla faltako hilaren 18ko saioan.

Bakarrizketa egitea oso lan pertsonala izan da niretzat. Ez dakit zehatz mehatz nolako saioa izango den, baina musika ere ez da faltako. Nire konposaketak abesten ditut gitarrarekin.

Koreako kulturara gerturatzeko dantzak eta ibilbide gastronomikoa

Iaz estreinekoz egin zen jaiak izan zuen harrera ona ikusita, aurten ere Mika Fest izeneko antolatatu Udaleko Kultura Sailak, Alex Robleño Alxshow influencerrarekin eta Euri dantza taldearekin elkarlanean. Mundu mailan ospetsu egin diren Hego Koreako kulturaren hainbat adierazpide bistaratu nahi ditu jaialdiak.



Mika Fest jaialdiaren antolatzaileek diotenez, “Mika Fest dantza asiarraren eta cover-dance delakoaren jarraitzaileei, eta fenomeno kultural horri buruz gehiago jakin nahi duten guztiei zuzenduta dago. Cover-dance izeneko horretan koreografia popularrak imitatzen edo egokitzen dituzte”.

Dantza jaialdia Coliseo antzokian egingo da, 16:00etatik 21:30era, eta bertan taldeka zein banaka arituko dira lehiaketarako aukeratu dituzten dantzariak. Alex Robleñoren berbetan, “aurten Zaragozatic, Bartzelonatic, Madriletik... etorritako jendeak hartuko du parte lehiaketan, baina beste toki askotatik bidali dizkigute parte hartzeko proposamenak. Aurrera begira, hemengo dantza eskoletatik izena ematera animatzea gustatuko litzaiguke”.

Nahi izanez gero, Coliseo barruan izango den ekitaldia osorik eta zuzenean jarraitu ahalko da, asmo horrekin Errebal Plazan jarriko den pantaila erraldoi baten bidez. Horrela, arratsalde osoa antzokian sartuta egon nahi ez dutenei ere ikuskizunaz gozatzeko aukera eman nahi diete: “Iaz 250 lagun baino gehiagok jarraitu zuten horrela jaialdia. Haurrekin, lagunekin... jendea askatasun osoarekin ibili daiteke Errebalen atzera eta aurrera, eta bide batez Coliseo barruko dantzak



Aurten ere Austin Pak koreografo, dantzari profesional eta Seulgo 1Million eskola ospetsuko irakaslea etorriko da Mika Fest jaialdian parte hartzera. Berarekin batera, epaimahaian Bilboko Euri Danceko eta Kpop-eko dantza irakaslea den June Higuera egongo da epaimahaian.

ikusi”. Eta Coliseoko ekitaldia amaitu ondoren, afterparty bat egingo da Errebalen, zuzeneko dantza eta bestelakoekin”. Coliseorako sarrera doan izango da, baina gonbidapena eskuratu beharko da sartu ahal izateko.

Antolatzaileen arabera, “Mika Fest jaialdiak arrakasta handia izan zuen iaz, eta aurten aurreikuspenak gainditzea espero da. Bertan izango dira, besteak beste, Austin Pak koreografo, dantzari profesional eta Seulgo 1Million eskola ospetsuko irakaslea, eta June Higuera Bilboko Euri Danceko eta Kpop-eko dantza irakaslea. Junek 15 urterekin jada nazioarteko artistekin partekatzen zuen agertokia, hala nola Azealia Banks rap-ablesariarekin. Hirugarren epaile bat ere egongo da, baina zein izango den zehazteke dago”. Coliseo antzokiko ateak 15:45ean zabalduko dituzte, parte-hartzaileei harrera egiteko, eta publikoa 16:00etatik aurrera sartu ahal izango da. Dantza-lehiaketa 16:30ean hasiko da eta Kibak aurkeztuko du.

Ibilbide gastronomikoa 14 tabernatan

Jaiaren bigarren edizio honetan, berritasun gisa, pintxo eta edari asiarraren ibilbide gastronomikoa antolatu dute, Eibarko ostalariekin elkarlanean: “Asmoa herritarrei Asiako sukaldaritzan inspiratutako zapore paregabe bez gozatzeko aukera ematea da”. Horrela, Eibarko 14 tabernatan (Slow, Kontent, Topaleku, Arkupe, Txoko, Ametsa, Guridi, Koskor, Chic, Banaka, Kultu, Lusai, Trinkete eta Baratzte) Asiako sukaldaritzan inspiratutako eskaintza dastatzeko aukera egongo da, domekara bitartean. Taberna bakoitzean zerbait jan edo daten denean, zigilu-marka ipiniko dute bertan eskuragarri egongo den kartillan, eta zortzi zigilu-marka dituzten guztien artean zozketa egingo da. Saria Asiako produktuekin osatutako otarra izango da.

**Ibilbide
gastronomikoaren
kartillan zortzi
zigilu-marka lortzen
dituztenek Asiako
produktuekin otarra
irabazteko aukera
izango dute**

Bideoa gure YouTube
kanaleanikusgai





Herri honetako muina zu zarelako **gara**

Egin zaitez bazkide!

eta kitto!
euskara elkartea



KITTONBOLIA



Eibartarren babesak ez du parekorik!

Eguraldia kili-kolo ibili bazen ere, eibartarrok berriz ere Arratiak ospatzeko gogotsu, goizeko hamarretan puntu-puntu zabaldu zituen ateak **KITTONBOLIAK**.

...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen ekimen jendetsuenetakoa da tonbola. Diru-iturria da Euskara Elkartearentzat, eta herritar askok eta askok tonbolako opariak besapean edo motxiletan gordeta hartzen dute etxerako bidea Arrate egunean. Baina tonbolak duen gauzarik ederrena han sortzen den giroa da. 17:30ak bueltan tonbola itxi genuen, sari guztiak banatuta!

MILA ESKER esan behar dizuegu beste behin ere Arrate egunean ere euskarari eman diozuen babesagatik. Dakizuenetz, gure herrian euskararen alde lanean jarraitzeko erabiliko da bertatik jasotakoa. Eta eskerrik asko, nola ez, **Kittonbola**ko opari mordo hori osatzen lagundu diguzuen denda, elkarte, taberna, enpresa eta erakunde guztiei.

Ez dago herritarren berotasuna bezalakorik!!!



LAGUNTZAILEAK

- WAPOS TXAKUR- ILEAPAINDEGIA
- AKARA TABERNA
- ALOHA TABERNA
- AMAÑAKO JAIK
- ARATATTO
- ARREGI DOMINGUEZ
ARRAINDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR KIROLDENDA
- ASPE PILOTA
- ASTELENA GASTROBAR
- ATEUN HARATEGIA
- ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA
- AZITAIN GASOLINDEGIA
- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- AZKENA TABERNA



- AZPIRI SANEAMENDUAK
- BAKO LEKU EGO-GAIN
- BAKO LEKU URKIZU
- BAISI TABERNA
- BALI GIMNASIOA
- BENICOBA ELEKTRODOMESTIKOAK
- BOLINTXO



- BORDA TABERNA
- BULEBÚ JATETXEA
- BURBUJAS Y MAS LURRINDENDA
- CAPI ESTETIKA
- CHIC ESTILISTAS
- CHIDO JATETXEA

- CLOSET
- COMERCIAL ZABALA
- CORRAL
- DANDARA JANTZIDENDA
- DENETIK
- DEPOR
- DIRDAI BITXITEGIA
- DITARE MERTZERIA
- EGUREN ELEKTRODOMESTIKOAK
- EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIA
- EIBAR ESKUBALOIA
- EIBAR IGERIXAN
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBAR SASOIAN ONGIZATE ZENTROA
- EIBARBUS AUTOBUSAK
- EIBARKO BASO BIZIAK
- EIBARKO KORO GAZTEA
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA KULTURA



- EL CANTON DE LA AVENIDA



- ELITE OFICINAS
- ELORTZA BOTIKA

- EMANKOR TALDEA ERAIKUNTZAK



- EROSKI EIBAR HIPERMERKATUA
- GERRITEK INFORMATIKA
- GIGIL DESIGN



- GO! GIMNASIOA
- GOIKO LUZ
- GOZOKI
- GRATZINA JANTZIDENDA
- GUBY JANTZIDENDA
- GURE ESKU DAGO
- GURIDI TABERNA
- HARTARA ARTISAU OSAGARRIAK



- HELMET HOUSE
- I LOVE 10€
- IBARKURUTZE FRUTADENDA

ESKERRIKASKO LAGUNTZAILE GUZTIEI!!!

• IBONE ESTETIKA



- IDOIA BERGARETXE ESTETIKA
- IKUSI EIBAR JANTZIDENDA
- INDA TEAM
- INDUSTRIAS ROSI
- INGURU ABENTURA
- IPAR SURF SKATE ESKOLA
- IRRITSA JANTZIDENDA



- ITXESI BELARDENDA
- IZADI LORADENDA
- IZANE DEKORAZIOA
- IZASKUN HARATEGIA
- JAUREGI ETXERAKO TRESNERIA
- JAZ ZUBIAURRE
- JERONIMO JOSTAILUDENDA



• JORGE VEGA S.L. IGELTSERITZA

• KAXA



- K2 BITXIAK ETA ESKULANAK
- KANTOI GASOLINDEGIA
- KENKO OSASUN ETA ONGIZATEA
- KERALA ESTETIKA
- KHOL ILEAPAINDEGIA
- KLAUS DEKORAZIOA
- KIÑU BURDINDEGIA
- KILI-KLIK ARGAZKILARITZA



- KOKEIN TALDEA
- KONTENT TABERNA
- KOPINA JANTZIDENDA
- KULTU TABERNA
- LABORAL KUTXA
- LAHIDALGA ZAPATADENDA
- LAKETT ESTETIKA
- LEDER POLTSO ETA OSAGARRIAK
- LOLA 'S JANTZIDENDA
- LUSAI JATETXEA
- LULU
- MARSÍ LOREDENDA
- MOAPICS
- MUGIKA HARATEGIA
- MUMA JANTZIDENDA
- NEURE
- NHAREA MASAJEAK

- NELE DANTZAK
- NO COMMENT JANTZIDENDA
- OBERENA HARATEGIA
- OTEGI HARATEGIA URKIZU
- OTEGI HARATEGIA SOSTOATARREN
- PARRIANDI
- PIRRITX ETA PORROTX



- PISSA ZAPATADENDA
- PUBLIRESA PUBLIZITATEA



- S.D. EIBAR FUNDAZIOA
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SHEIKO
- SOSOLA BASERRIA
- SU TA GAR TALDEA
- SUBEROA TABERNA
- TACTO ESTETIKA
- TIRO PITXON JATETXEA
- TRINKETE
- TUTULO
- TWINS JANTZ IDENDA
- TXUKUNA MERTZERIA
- UMEA JANTZIDENDA
- URDANIBIA JANTZIDENDA
- URKOTRONIK
- XARE JANTZIDENDA
- YRAOLAGOITIA LIBURUDENDA
- ZAIZOI TABERNA
- ZELAI- BIDE TABERNA
- ZORIONAK LUDOTEKA
- ZUBI GAIN BERRIA TABERNA









ARGAZKIAK: SILBIA HERNANDEZ

irudi gehiago eta bideoak: etakitto.eus



“Fisikoki eta mentalki gogorragoa da Jokoetara teknikari bezala joatea kirolari moduan baino”

ANDER ROMARATE • Teknikaria Paris 2024 Paralinpiar Jokoetan



2012ko Londreseko Paralinpiar Jokoetan kirolari bezala parte hartu ondoren, Parisen izan da aurten Ander Romarate. Igerilekuan pasa ditu egun gehienak eibartarrak, baina ez uretan, kanpoan baizik, Espainiako delegazioarekin teknikari lanetan. Pozik dago bizi izandako esperientziarekin eta lortutako emaitzekin, baina dagoeneko hasi da Los Angeleseko Paralinpiar Jokoetan pentsatzen.

Parisetik iritsi berri da Ander Romarate, baina bere jardunak ez du etenik. Azken bi urteotan egindako lanari jarraipena eman nahi dio eta Los Angelesen are emaitza hobekoak lortu. Horrez gain, beste zenbait proiektu ditu esku artean Emen 4 Sports enpresarekin eta Eibar KE-rekin.

Zein izan da zure zeregina Paris 2024 Paralinpiar Jokoetan?

Bi urte daramatzat Espainiako Paralinpiar Batzordearekin lanean. Alde batetik, Emen 4 Sport enpresarekin batzordean dauden kirolari paralinpiko guztien errendimenduaz arduratzen gara. Eta bestetik, orain dela zenbait urtetatik batzordeko igeriketa sailaren arduraduna ere banaiz. Beraz, Emen 4 Sporten ordezkaritza eta igeriketa arloaren arduradun bezala joan naiz Parisera. Batez ere igeriketari ibili naiz buru-belarri eta igerileku barruan pasa ditut ordu gehienak.

Nolako esperientzia izan da? Nolako emaitzak lortu dituzue?

Gogorra izan da. Egia da Jokoen aurretik ere zenbait kontzentrazio eta entrenamendu saio izan genituela eta aste asko egin genituela etxetik kanpo, baina

orain Parisen hiru aste pasa ditugu eta gogorra izan da, etengabeko errutina delako. Egunero ia momentu oro duzu zereginen bat. Justu-justu, jateko eta lo egiteko denbora edukitzen duzu. Beraz, gogorra da arlo fisikoan eta mentalean. Dena dela, Jokoak ondo joan dira eta egiten dudana balorazioa guztiz positiboa da. Kasu zehatz batzuetan emaitza hobekoak izan zitezkeen, baina orokorrean emaitzak onak izan dira. Kirol paralinpikoan gero eta maila hobea erakusten ari gara, eta Espainiako delegazioak Tokio 2021 Paralinpiar Jokoetan baino domina gehiago lortu ditu. Igeriketari ere emaitza onak eduki ditugu eta balorazioa oso ona da. Oraindik ere lana dugu aurretik eta hobetzen ahaleginduko gara, baina pozik itzuli gara.

Zuretzat ez da lehen aldia izan Paralinpiar Jokoetan, Londres 2012 Jokoetan kirolari moduan lehiatu baitzinen. Orain teknikaria izan zarenez, ezberdin bizi izan dituzu?

Londreseko Joko Paralinpikoetan nahiko gazte aritu nintzen eta bertan bizitako esperientzia buruan izan dut. Parisekoa, ostera, beste modu batean bizi izan dut. Esperientzia guztiz ezberdina izan da. Beste eginkizun batekin joan naiz eta, Londreseko Jokotatik 12 urte



Kirol bizitza igerilekuan pasa ondoren, Romarateren aholkuak oso baliagarriak izan ziren Espainiako igerilarientzat.

pasa direnez, esperientzia gehiagorekin egin diot aurre erronkari. Hori bai, kirolariei askotan esan diet fisikoki eta mentalki gogorragoa dela teknikari bezala joatea kirolari moduan baino. Azkenean, kirolariak bere entrenamenduak edo lehiaketak amaitzen dituenean atseden hartzeko eta deskonektatzeko momentuak izaten dituzte, baina entrenatzaileek, fisioterapeutek eta medikuek ez, egun guztian egon behar direlako kirolarien esku. Horrela da egunero, eta egunak pilatzen doazen neurrian nekea nabaritzen da. Dena dela, asko ikasten da eta mundu hau gustatzen zaigunontzat horrelako toki batean egotea demasa da. Beste herrialde batzuek nola lan egiten duten ikusi ahal izan dugu, igerilekua ikusgarria da, baita beste instalazioak ere... Alde horretatik esperientzia oso ona izan da.

Kirolari dagokionez, aldaketa edo eboluzioa igarri duzu Londreseko Jokoekin alderatuz?

Kirol paralinpikoan gero eta profesionalizazio handiagoa dago. Londresen, adibidez, herrialde batzuk nahiko profesionalizatuta zeudela ikusten zen, Espainia kasu, baina beste batzuk ez. Dominak lortzeko behar diren markak nahiko antzekoak izaten jarraitzen dute,

“Kirol paralinpikoan gero eta profesionalizazio handiagoa dago. Maila igo egin da eta finalera sartzea askoz ere zailagoa da”

baina parte-hartzaileen batezbesteko maila baxuagoa zen lehen. Gaur egun, maila igo egin da eta finalera sartzea askoz ere zailagoa da. Herrialde guztietan kirol paralinpikoa profesionalagoa delako, hobeto entrenatzen dutelako eta gehiago zaintzen direlako gertatzen da hori. Bestalde, Joko hauetan, historian lehen aldiz, kirolari olinpikoez eta paralinpikoez diru-sari berdinak jaso dituzte. Horrek asko bultzatzen du kirol paralinpikoa eta, ondorioz, kirolari paralinpikoen maila igotzea. **Kirolari batentzat zer da Joko Paralinpikoetan parte hartzea?**

Goi-errendimenduan dabiltzan kirolarientzat bere ibilbideari ginga jartzea da, helburu handi bat lortzea.

Gehientzat Jokoetan parte hartzea bera helburu garrantzitsu bat lortzea da, baina ‘aukeratuek’ dominak lortzea dute helburu. Lau urte edo gehiagoren emaitza da. Lau urte asko dira kirolari baten bizitzan eta saria da horrelako lehiaketa batean aritzea.

Lau urte edo gehiagoko lanaren ondoren, egun gutxitan den-dena dago jokoan. Kirolariek nolako presioa edukitzen dute? Teknikariek nola laguntzen diezue?

Kirol bakoitzean modu ezberdinean erabakitzen da Jokoetarako sailkapena (batzuk gutxieneko marka behar dute, beste batzuk txapelketen bitartez sartzen dira...), orduan presioaren kontua ezberdin kudeatzen da. Igeriketaren kasuan gutxieneko marka behar izaten da eta urte osoa dago lortzeko. Orduan, marka urtearen hasieran lortuz gero, lasaiago kudeatu dezakezu presio hori; kostatzen bazaizu, ostera, presio aldetik okerrago pasa dezakezu. Jokoetan bertan, kirola oso profesionalizatuta dagoenez, presioan asko eragiten du. Izan ere, Parisen lortutako emaitzek hurrengo ‘zirklo olimpikoa’ baldintzatzen dute, Jokoetan lortutako postuarengatik sari bat edo beste jasotzen duzulako eta bekak ere bertako emaitzen arabera ematen direlako. Kirolari profesionala bazara, kirola da zure lana eta arlo ekonomikoak asko baldintzatzen zaitu. Ondorioz, kirolariak presio horrekin lehiatzen dira Jokoetan. Horrez aparte, Jokoetan kirolariak aparteko eszenatokietan lehiatzen dira eta hori kudeatzea ere zaila da. Adibidez, igerilariak 20.000 lagunren aurrean aritu dira eta ez daude horretara ohituta. Ez da erraza hori guztia kudeatzea, gazteentzat batez ere, eta ikusi dugu batzuen kasuan eragina izan duela.

Pariseko Jokoak pasata, Los Angelesekoetan pentsatzen hasi zara?

Ni behintzat hasi naiz. Lanean bi urte bakarrik eman ditudanez, gauza asko egin barik gelditu dira. Gauza horiek apuntatuta nituen eta dagoeneko hasi naiz bueltak ematen. Urritik aurrera poliki-poliki lanean hasiko gara. Kirolari batzuek atsedean tarte luzeagoa hartuko dute, beste batzuek laburragoa, baina lanean hasiko gara lau urte azkar pasatzen direlako.



“Joko hauetan, historian lehen aldiz, kirolari olimpikoe eta paralinpikoe diru-sari berdina jaso dituzte”

Paralinpiar Jokoetan teknikari izateaz gain, Emen 4 Sports enpresa duzu eta Eibar KE-n futbol egokituaz arduratzen zara. Nolako proiektuak dituzu esku artean?

Emen 4 Sports goi-errendimenduko kirolera bideratuta dago eta oso momentu garrantzitsua bizitzen ari gara, zentro berri bat zabaldu behar dugulako. Eibar KE-rekin, berriz, urtetik urtera indar gehiago hartzen ari den proiektua garatzen ari gara eta oso pozik nago. Joan den astean hasi ginen entrenamenduekin eta dinamika berdinari eutsiko diogu. Ea Genuine taldean gero eta kirolari gehiago edukitzen jarraitzen dugun; PC taldearekin berriz liga irabazten saiatuko gara.

Armando Azkonaga omenduko dute 29. Simon Aldazabal igoeran

Klub Deportiboko atletismo batzordeak antolatuta, domeka goizean jokatu den igoerak oraingoan Armando Azkonaga atleta-ohia omenduko du. Aurreko urteetako bidetik, proba goizeko 10:30ean abiatuko da Depor paretik eta Arrateko zelaian bertan amaitu, aurretik bost kilometro eta erdi izango dituen ibilbidea osatu eta gero. Izen-emateak Deporren bertan egin ahal izango dira goizeko 09:30etik au-

rrera eta inskripzioak doan dira. Parte-hartzaileek Orbetik joko dute Arrateren bila eta bidean %20tik gorako aldapak ere izango dituzte zain. Antolatzaileek dioten bezala, "sariak egongo dira lehenengo atletentzat eta baita zozketa bat ere partehartzaile guztien artean. Gainera, Urkizuko iturrira lehenengo heltzen diren atletek (emakumezkoen zein gizonezkoen ataletan) txuleta bana jasoko dute".



Simon Aldazabal igoeraren orain dela urte batzuetako irteera.

Larrondoa eta Hiru Erregeen Mahaia Deporreko mendizaleen hurrengo irteeran

Irailaren 21 eta 22ko astebururako bi eguneko irteera antolatu dute Deporreko batzordekoek Izaba ingurura. Honakoak izango dira prestatu dituzten ibilaldiak: zapatuan, Izabatik Juan Pitoren bentara, tartean 1.703 metroko Larrondoa eginez; eta domekan, Belaguako aterpetik Linzako aterpera, bidean 2.446 metroko Hiru Erregeen Mailatik pasatuz. Egun bietan aukera egongo da ibilbide ofizialak egin gabe, ordezko ibilbideak egiteko, hau da Larrondoa eta Hiru Erregeen Mahaia igo gabe. Zapatuko ibilbideak 14 kilo-

metro eta erdi izango ditu, eta domekakoak ia 20 kilometro.

Irailaren 21eko goizaldean irtingo dira eta Belaguako aterpean egingo dute lo. Prezioan autobus-bidaia, aterpetxeetako afaria, logela eta gosaria sartzen dira. Prezioak honakoak dira: 145 euro bazkideen kasuan, eta 165 bazkide ez direnendako. Izena-ematerakoan 50 euroko fidantza jarri beharko da eta ordainketa egiteko kontua honakoa da: ES85 3035 0078 8407 8000 5897. Irteera hori ere, azken aldian egindako bidetik, Elgoibarko

Datorren asteburuan hasiko da futbol- zaletuaren 43. edizioa

Irailaren 14an eta 15ean jokatuiko diren partiduekin abiatuko da gure herriko futbol-zaletu torneoaren beste edizio bat, dagoeneko 43.a izango dena. Oraingoan, iazkoari jarraituz, beste bederati taldek hartuko dute parte bertan. Zapatuko jardunaldian Limpieza Rueda eta Malape Taberna taldeen artekoa jokatuiko da 09:00etan eta, ondoren, 10:30ean hasita, Xania Taberna eta Garajes Garcia taldeek neurtuko dituzte indarrak. Domekakoan Unbeko goiko zelaia hartuko ditu norgehiagoka biak: 09:00etan, Baserri BOJ-en kontra; eta 10:30ean, Bar Marem Gastro Gildaren aurka. Lehenengo jardunaldi horretan Adahi-Etxegik hartuko du atsedena. Ikusten denez, iazko talde berberak hartuko dute parte oraingoan ere; aldaketa bakarra Adahiren izenean: lehen Adahi Eraieder, orain Adahi-Etxegi.



Morkaiko Mendizale Elkartearekin batera antolatu dute Eibarko Klub Deportibokoek.

Joseba Etxeberriaren taldeak itxura onarekin hasi du denboraldia

Dagoeneko Hipermotyon Ligako lau partidu jokatu ditu SD Eibarko gizonaen lehen taldeak. Eta, iaz ez bezalako hasierarekin, porrotik jaso gabe. Hori, taldeak aldaketa asko izan dituen arren. Ipuruan Castelloni irabazi eta Levanterekin berdindu; etetik kanpo, Racingekin berdindu eta Albaceten irabazi. Horiek dira orain arteko emaitzak bihar Tenerife Ipuruan hartu aurretik. Une honetan Joseba Etxeberriarenak laugarren dira

sailkapenean, zortzi punturekin Racing eta Levanterekin berdinduta; aurretik daude Zaragoza liderra (10 puntu) eta Huesca bederatzirekin.

Denboraldiaurrean ere maila onean jardun zuen taldeak, etorritako jokalariek egokitze bideari eusten zioten neurrian. Horrela, Athleticekin (1-0) eta Sportingekin aurka (2-1) galdu bazuten ere, Real Unionekin (1-1) eta Racingekin (0-0) berdintzeaz aparte, SD Eibar Barakaldori (3-0), Osasuna

Promesasi (0-4) eta Amorebietari (0-2) nagusitu zitzairen.

Atzetik datozen SD Eibarko taldeak azken denboraldian baino estuago ibiliko dira, jakinda biek ere maila igo dutela. Hala ere, 2. RFEF Mailan jokatzeko duen Eibar B-k (lehenengo Vitoria) bikain hasi du liga, jokaturako bi partiduak irabazita. Ez du zorte bera izan 3. RFEF Mailako taldeak (lehenengo Eibar Urko), jokaturako bakarrean Basconiaren aurka etxean galdu baitzuen.



ETXEBERRIA
entrenatzailea



FUZATO
atzeaina



MAGUNA
atzeaina



ARAMBARRI
atzeaina



ARBILLA
atzeaina



CARRILLO
atzeaina



CHEMA
atzeaina



CRISTIAN
atzeaina



CUBERO
atzeaina



HODEI
atzeaina



GURUZETA
erdilaria



KENTO
erdilaria



MADA
erdilaria



MATHEUS
erdilaria



MERQUELANZ
erdilaria



NOLASKOAIN
erdilaria



SERGIO
erdilaria



TONI VILLA
erdilaria



TRONCHO
erdilaria



ALKAIN
aurrelaria



BAUTISTA
aurrelaria



PASCUAL
aurrelaria



PUERTAS
aurrelaria



SLAVY
aurrelaria

Yerai Martinen taldeak sendotasunari eusteko bidetik ekin dio

Azken denboraldia maila bikainean amaitu ondoren, F Ligako denboraldi berria indartsu hasi du SD Eibarko emakumezkoen lehen taldeak. Batez ere, atzeko lerroan erakusten jarraitzen duen sendotasun mailari esker. Ligan partidu bakarra jokatu du taldeak, eta hor 2-0 nagusitu zitzaion Betisi. Domekan, hor ere Ipuruan, Valentzia hartuko dute bigarren jardunaldian.

Denboraldiaurreko partiduei dagokienez, eibartarrek F Ligako

beste bi talde euskaldunekin galdu eta gero, jokaturako beste guztiak irabazi zituzten. Athletic-ekin 1-0 galdu eta Realaren aurrean Euskal Herriko Koparen finalerdian 3-1 amore eman eta gero, SD Eibar nagusi izan zen Logroñon (1-3 irabazita bertako DUX Logroñori), gauza bera egin zuen Deportivo Abanca eta Nantesen aurrean (2-1 eta 5-2 izan zen garaile) eta, azkenik, Osasunari 0-3 nagusitu zitzaion EHko Koparen 3. posturako norgehiago-

kan. Ane Campos eta etorri berria den Monnecchi italiarra izan ziren goleatzaile nagusiak, bost eta lau golekin.

Atzetik datozen taldeei dagokienez, 2. RFEF Mailara igo berri den Eibar B-k 2-1 galdu zuen Realarekin ligako lehen jardunaldian, Euskal Ligan jokatzeko duen Eibar C hirugarren taldeak Unben Anaitasunari 3-0 nagusitu zitzaion bitartean aurreko asteburuan hasitako Liga jardunaldian.



MARTIN
entrenatzailea



MIRALLES
atezaina



NOELIA
atezaina



ANDREA
atzelaria



ANNELIE
atzelaria



CARLA
atzelaria



EIDER
atzelaria



ELBA
atzelaria



MIREIA
atzelaria



PATRI OJEDA
atzelaria



AMANI
erdilaria



ARENE
erdilaria



LEIRE PEÑA
erdilaria



VAN DEURSEN
erdilaria



ANDREA
aurrelaria



ANE CAMPOS
aurrelaria



ESPE PIZARRO
aurrelaria



LAURA
aurrelaria



MONNECCHI
aurrelaria



NATI CANO
aurrelaria



Kontsumo arduratsuari buruzko kartel lehiaketa

Pobreziaren Aurkako Borrokan Ingurumen Jasangarritasunaren aldeko Sareak eta Biolurrek *Kontsumo arduratsua: gure planeta zaintzen* izenburuko kartel lehiaketa antolatu dute. Gai nagusia agroekologia eta kontsumo arduratsua izango da, eta teknika librea (akuarela, collagea, argazkia, marrazkia...). Parte hartzen dutenen artean bi sari banatuko dituzte: 60 euroko balioa duen saria (gazteen kategorian, 11-15 urte) eta 150 euroko balioa duen saria (helduen kategorian, 16 urtetik gora). Lanak irailaren 25a baino lehen bidali behar dira, helbide honetara: redsostenibilidadambiental@gmail.com. Eta informazio gehiago nahi izanez gero, www.redsostenibilidadambiental.org helbidean begiratu.



Domekan itxiko da Amaia Tellaetxeren erakusketa

Domekara arte egongo da ikusgai Amaia Tellaetxe artista eibartarraren marrazki eta pintura erakusketa, Untzaga gizarte etxean. Tellaetxek bere-bereak dituen estilo eta teknikak erabilia egin dituen koadrorik berrienak aukeratu ditu erakusketa horretarako. Gaur 19:15etik 21:00etara zabalduko dute, eta bihar eta etzi, berriz, 12:00etatik 14:00etara.



Zorionak Ludoteka Zinemaldian egongo da

Aurten ere Eibarko Zorionak Ludotekakoak Donostiako Zinemaldiko *Puxika Gorria* ludotekan arituko dira beharrenean, irailaren 20tik 28ra. Seigarrenez egongo dira bertan, eta aurreko edizioetan bezala, *Puxika Gorriak* 120 metro karratuko espazioa izango du San Telmo Museoa. Gainera, terraza estalia izango duen barneko espazio bat egokituko da bertan.

Zerbitzua, berez, antolakuntzako langileen seme-alabentzat pentsatuta dago, baina, iaz bezala, Zinemaldiko publikoak ere erabili ahalko du, zapatuan (irailaren 21ean) eta domekan (irailaren 22an), arratsaldez. Horrela, egun horietako saio baterako sarre-ra bat izanez gero, ludotekan hiru orduz (15:00etatik 18:30era) doan egoteko aukera izango dute (edukiera bete arte). Horretarako ezinbestekoa da aldez aurretik tokia gordetzea (Zorionak-eko arduradunekin zuzenean harremanetan jartzeko, 688876518 telefono zenbakira deitu edo ludotekazorionak@gmail.com helbidera idatzi daiteke). Zorionak Kids & Party-ko zaintzaileek euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eman go dute arreta, eta lekuak mugatuak dira.

Euskaraldia ON! topaketa



Euskaraldia, hizkuntza ohi-turak aldatzeko ariketa soziala, egongo da 2025eko maiatzaren 15etik 25era, eta Eibarren Akebaik topaketa antolatu du irailaren

26rako: "Lehen urratsak emateko, Euskaraldia ON! egongo da, Euskal Herriko euskaltzaleekin, teknika-riekin...". Coliseon izango da, 18:00etatik 19:30era, eta akekide eta euskaltzale guztiak daude gonbidatuta.



Esgrima historikoaren erakustaldia egingo da irailaren 28an

Urriaren 20ra arte ikus daitekeen *Museoko ertz zorrotzak* erakusketaren harira, Eibarko Armagintzaren Museoak esgrima historikoaren erakustaldia antolatu du irailaren 28rako. Erakustaldia eguerdiko 12:00etan izango da, Untzaga plazan, eta horretarako Armagintzaren Museoan martxan dagoen aldi baterako erakusketako ezpaten erreplikak erabiliko dituzte. Museoak arduradunek azaldu dutenez, “erakustaldian Donostiako Ignota Arma Aretoko kideen eta Gasteizko CSE Esgrima Klubaren laguntza izango dugu, eta ziur gaude erakustaldi bikaina, ezinhobea izango dela”. Eguraldi txarra izanez gero, Errebal Plazan izango litzateke. Bestetik, egun horretan, ezpatetan aditua den Iker Alejok doako bisita gidatua eskainiko du Museoan dagoen aldi baterako erakusketan, 17:00etan hasita.



‘Fue en abril’ antzezlanaren aurkeztuko dute Coliseon

Rosa Martínez-Alcocer 2021eko apirilean hil zen aktore eibartarraren omenezko lana, *Fue en abril. Pequeño homenaje a una actriz* izenburukoa, antzeztuko dute gaur 20:00etan Coliseon (sarrerak 10/7 euro balio du)..



Indalecio Ojanguren argazki lehiaketaren edizio berria

Eibarko Udalak, Klub Deportiboaren laguntzaz, 2024ko Indalecio Ojanguren XXXVII. Argazki Lehiaketarako deia egin du. Edozeinek hartu dezake parte, norberaren aukerako gaiarekin, eta parte-hartzaile bakoitzeko gehienez hiru argazki zuri-beltzean eta hiru koloretan onartuko dituzte. Izen-ematea doa-koa da, eta lehiaketarako lanak irailaren 30era arte aurkeztu daitezke. Lanak Eibarko Udalaren Kultura sailean (Portalea eraikina, 1. pisua) entregatu beharko dira, honako jarraibideak kontuan hartuta: argazkiak 40x50 zentimetroko kartulinarekin edo kartoiarekin indartuak aurkeztu beharko dira; eta argazkiak gehienez ere 30x40 zentimetrokoak izan beharko dira. Lan bakoitzaren atzealdean lanaren izena zein den azaldu beharko da. Egilearen datuak, berriz, kartazal itxi batean, bidalketaren kanpoaldean itsatsita aurkeztuko dira. Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteak hemengo argazkilariak saritzeko egiten den lehiaketa hori garrantzitsuenen artean dago, eta 06/2024 Argizaiola Lehiaketaren sailkapenerako baliagarria da.

Aire Zabaleko pintura lehiaketa

Eibarko Udalak, Eibarko Artisten Elkartearen laguntzaz, 2024ko Aire zabaleko XLVII. pintura lehiaketarako deia egin du. Lehiaketa urriaren 27an (domeka) egingo da, eta nahi duten artista guztiek hartu ahal izango dute parte. Artista horiek goizeko 08:30etatik 11:00ak arte aurkeztuko dira, Udaletxeko patioan, mihiseak eta paperak zigilatzeke eta izena emateko. Lehiaketari buruzko informazio zehatza zein bestelako xehetasun guztiak Udalaren webgunean kontsultatu daitezke.





AURKITU 7 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5				6	8		9
				5	2	1	
2	7						5
4			1	9			
		2			1		
			3	7			8
6						8	4
	5	7	6				
1	4	9					2

2	9	8	1	5	1
1	6	7	3	2	8
8	2	5	4	9	7
3	4	1	6	2	9
7	1	2	8	3	5
5	3	9	7	4	6

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

2	9	8	1	5	1
1	6	7	3	2	8
8	2	5	4	9	7
3	4	1	6	2	9
7	1	2	8	3	5
5	3	9	7	4	6

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

				8		7
			1	5	8	3
		2			5	4
9	4		1			
8	1		7			9
				3		1
	6	4		1		
7		2	6	5		
	9		3			

Irailak 13/19

BARIXAKUA 13

ANTZERKIA

20:00 "Fue en abril. Pequeño homenaje a una actriz", 'Teatro sin tierra' konpainiaren eskutik. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



ZAPATUA 14

WELCOME OPORRETAN

11:00 Gaztelu puzgarriak eta kartak (automobilak). Auzoa girotzeko musika.
16:00 Haurrentzako parkea, gaztelu puzgarriak eta eskobatzeko makina.
17:00 Txotxongiloak, Bihar Taldearen eskutik.
18:00 Umeentzako txokolate-jana.
18:30 "Aitxitxa/amama eta biloba" (heldua eta txikiak) patata-tortilla lehiaketa.
21:00 Diskoteka, DJ emanaldia. Amaña es la Caña-k antolatuta. Amaña.

MIKA FEST

16:00/21:00 Koreako kulturaren erakustaldia: dantzak, sukaldaritza tradizionala... Kpop Cover Dance lehiaketa. Coliseo. Ondoren, afterparty-a Errebal Plazan.



DOMEKA 15

KOFRADIA ETA BASERRITAR JUBILATUEN EGUNA

10:30 Simon Aldazabal XXIX. Antxitxiketaldia. Eibarko Klub Deportibotik irten eta Arrateraino (Orbeko bidetik).
11:00 Meza Nagusia, bertsolariekin. Ondoren, prozesioa, Usartza Txistulari Bandak lagunduta.
12:00 Paella lehiaketa.
14:00 Paella lehiaketaren sari banaketa.
17:30 Idi-probak. Arrate.



BIEN APARECIDA AMA BIRJINAREN JAIAK

13:00 Meza, San Agustín elizan.

14:15 Bazkide eta lagunentzat piskolabisa, Kantabriako Etxeak Jardinetan duen tabernan.

MARTITZENA 17

MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA

16:00/20:00 "Jarri zure bizikleta prest MUGIrekin", bizikleten oinarritzako konponketa-zerbitzua, MUGI pertsonalizatua aurkezten dutenentzat. Untzaga.



EGUAZTENA 18

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

UMOREZKO BAKARRIZKETA

19:00 Barry Manley, Euskal Herrian bizi den irlandar umoristaren eskutik. Arrate Kultur Elkartek, Kultu tabernak eta AEK euskaltegiak antolatuta. Kultu taberna.

EGUENA 19

PRESTAKUNTZA-SAIOA

09:00/13:00 Adimen artifizialari buruzko prestakuntza-saioa, Imanol Teranen eskutik. Ekingune elkarteak antolatuta. Armeria Eskola.

ERAKUSKETAK

Domekara arte:

- **AMAIA TELLAETXE** Eren pinturak. (Untzaga gizarte etxea).

Urriaren 20ra arte:

- **"MUSEOKO ERTZ ZORROTZAK"** (Armagintzaren Museoa)

Eskaaldeko Agenda

DEBA

LASTURKO JAIAK

13an (BARIXAKUA)

Bertso-afaria

21:00 Tabernan

14an (ZAPATUA)

Bikoteen Eguna

17:30 Jolasak eta zezenak

Andutz Dantza Taldea

Gauez, kantu-afaria

eta trikitilariak

15ean (DOMEKA)

Pilota finalak

14:00 Bazkaria

17:00 Herri-kirolak

SORALUZE

MESEDEETAKO JAIAK

13an (BARIXAKUA)

22:30 Bikustik taldea

14an (ZAPATUA)


22:30 Zatekeen erromeria

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **15ean:** 20:00
- **16an:** 19:30

"Reinas"
DRAMA



2024/Peru/104'
Zuzendaria: Klaudia Reynicke
Aktoreak: Abril Gjurinovic,
Luana Vega, Gonzalo Molina
90. urteak/Nerabearoa

2 ARETOA

- **14an:** 22:30
- **15ean:** 17:00, 20:00
- **16an:** 19:30

"El mayordomo inglés"
KOMEDIA



2023/Frantzia/100'
Zuzendaria: Gilles Legardinier
Aktoreak: John Malkovich,
Fanny Ardant, Emilie Dequenne
Drama/Erromantzea

ANTZOKIA

- **14an:** 22:30 (1 Aretoa)
- **15ean:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **16an:** 19:30

"Bitelchús Bitelchús"
KOMEDIA



2024/AEB/104'
Zuzendaria: Tim Burton
Aktoreak: Michael Keaton,
Winona Ryder, Catherine O'Hara
Fantastikoa/Terrorea/Sekuela

ANTZOKIA

- **15ean:** 17:00

"Buffalo Kids"
ANIMAZIOA



2024/Espainia/93'
Zuzendaria: Juan Jesus Garcia
**Abenturak/Western/
Adiskidetasuna**



B

ERBETAN JAIALDIA

Irailak 24

ASTEARTEA

UNTZAGAN

17:00-18:30

Puzgarriak, tailerrak...

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzaarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **EKHI!**
7 urte potolo oinguan. Musu haundi bat danon eta, batez be, Kiraren partetik. Askoi maite zaittugu.



Zorionak, **KEPA!!**
Datorren eguaztenian 7 urte egingo dozuz eta. Amama Edurne eta aititza Josuren partez.



Zorionak, **OIHAN,**
hillaren 15ian 8 urte beteko dozuz eta. Oso ondo pasa eta musu haundi bat, famelixa osoaren partez.



KATTALIN, gaur urtetxua betetzen dozu! Zein ondo! Zorionak Eibar eta Elorrixoko famelixen partez.



Zorionak, **URKO!**
Hillaren 9xan 5 urte bete dozuzelako! Patxo haundi bat famelixaren partez.



NAIA gure etxeko printzesak hillaren 11n 6 urte bete zittuan. Zorionak asko maite zaittuen zure famelixaren partez.

MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA

ASTEARTEA Irailak 17 – “Jarri bizikleta prest MUGIrekin” (Antolatzailea GFA)
16:00-20:00, Uetzaga Plaza | Bizikleten oinarriko konponketa-zerbitzu MUGI personalizatua surketzen dulemeratzeko

IGANDEA Irailak 22
– **BIGARREN ESKUKO BIZIKLETEN AZOKA ETA KONPONKETA TAILERRA**
10:00-14:00, Uetzaga Plaza | Azokan parte hartzeko ezinbestekoa da aldeaz aurretik izena ematea: 943 67 02 49 / www.merkabi.eus/eibar

– **BIDE HEZKUNTZAKO HAUR ZIRKUITUA ETA GINKANA**
17:00 – 19:30, Uetzaga Plaza (euria agiten bada, Enebal Plazan)
Adina: 5 – 12 urte / Ezinbestekoa da bizikleta edota patinetea ekartzea

– **AUTORIK GABEKO EGUNA** (Eibar-Arrateko autobus zerbitzu dohainik)

Informazioa eta
zer emateak:
www.merkabi.eus/eibar
Tel: 943 670 240

Konbinatu
eta mugitu!

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Jardinetan, goiko parkinetik gertu. 2 logela, komuna, sukaldea eta egonela beheko suarekin. Gas naturala. Ortua jartzeko lur sailtxoa. Eguzkitsua eta bista ederrak. 750 hilean. 651678454/658723275.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Esperientzia. 602490595.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 643085598.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 642885605.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko arratsaldez. 665733162.
- Emakumea eskaintzen da bulegoak, etxeak eta obrak garbitzeko. 638421827.
- Neska eskaintzen da denetario lanak egiteko. 747452460.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 3 urteko esperientzia. 602051567.
- Andereño euskalduna umeak zaintzeko eskaintzen da. Goizez eta eguerdian. Urteetako esperientzia. 628933542.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile bezala. Autoarekin. 646351853.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita gauzez ere. 679912841.
- Neska eskaintzen da etxeak eta pegorak garbitzeko. Orduka. Urteetako esperientzia. 620757528. Arrate.
- Gizonezkoa eskaintzen da pintore lanak egiteko Eibarren eta Ermuan. Baita beste batzuekin lan egiteko ere. Urteetako esperientzia. 634155697. Javi.
- Lanetarako eskua duen gizonezkoa eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko eta bestelakoetarako. 692808337.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632642320.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 643085244.
- Neska eskaintzen da goizez umeak eta nagusiak zaintzeko, garbiketa-lanetarako edo jendeaurrean lan egiteko (dendak...). Esperientzia. 688624667.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). 602490595.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 640771147.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da etxeko zereginak egiteko. Ezinbestekoa: autoa eta soziosanitari agiria. 688670009.
- Sukaldari euskalduna behar da urritik aurrera Eibarko Klub Deportiboak martxan jarriko

- duen jatetxerako. 665726146 (Iñaki) eta 943201904 (Klub Deportiboa).
- Kamarera/o behar da irailera-ko. 627778980.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Ingelesezko klaseak ematen dira. Maila guztiak. 699522514.
- Kitarra, baxu elektrikoa, konboak, sormen eta edizio musikala (home estudio) eta armonia modernoaren klaseak ematen dira. maria-nohurtadobravo@gmail.com. 652217737. Mariano (Musi-kene).
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

KARTELEN LEHIAKETA

GURE PLANETA

KONTSUMO ARDURATSUA: ZAINTZEN

Lehiaketa honek bi kartel aukeratu nahi ditu, **agroekologian eta kontsumo arduratsuan ainarritutako** azoka eta ekitaldiak hobekien irudikatzeko. Utzi zure azterna sortzaile eta jasangarria gure ekitaldietan!!

60€-tan baloraturiko **SARIA** Gazteen kategoria: 11 eta 15 urte bitartekoak

150 €-tan baloraturiko **SARIA** Helduen kategoria: 16 urtetik gorakoak

Animatu eta parte hartu 2024ko irailaren 25era arte zure obra hona bidaliz: redsostenibilidadambiental@gmail.com

Irakurri hemen oinarriak










EIBARKO ELKARTE GASTRONOMIKOAK

Herriko soziedade guztiak jasoko dituen publikazioa

eta kitto!

Herriko soziedadeak jasoko dituen publikazioa kaleratzeko asmoa dugula eta, bertako kideon kolaborazioa beharko dugu. Horregatik, behar ditugun datuak jakinarazteko gutuna dagoeneko banatu genizuen **hemen dituzuen 63 elkarteetan**. Bateren batengana ez bagara iritsi, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea.

Behar dugun informazioa: elkartearen izena eta nondik datorren, helbidea, sorrera-data, bazkide kopurua, kuota, egun berezia (ospakizun eguna) eta urteroko ekitaldiak. Fitxaren lagungarri, eta irudien arloan, elkartearen **logoa** eta **talde-argazki** bat (aproposena ikusten duzuen, edozein ospakizun edo ekitaldikoa izan daiteke, ez da beharrezkoa elkartekide guztiak bertan izatea).

<ul style="list-style-type: none"> - Alpernak - Amaña - Andirao - Asola Berri - Aterpe - Badiok - Baten Bi - Batuak - Behartsuak - Bekuak - Beti Asarre - Beti Gaidu - Beti Jai - Bide Alde - Bomba - Botellin 	<ul style="list-style-type: none"> - Buztarni - Centro Burgales - Dardai - Denon Sahatsa - Dorrepe - Edozer - Erdi Bana - Estrella - Galdaramiño - Gazte Gogor - Gure Bastarra - Gure Txokoa - Ipurua - Itur Ondo - Itxulanbrua - Izar Berri 	<ul style="list-style-type: none"> - Izarra - Jaiki - Jatorrak - Jatunak - Kamarroak - Kerizpe - La Perla - Legarre Gain - Lore Toki - Ondo Nai - Ospelak - Otarra - Pantaila - Peña Txinbera - Piztu - Rakano 	<ul style="list-style-type: none"> - Sasipe - Tariñak - Txabola - Txinkil - Txirixo - Umbe - Unzaga - Urkipe - Urkizu Gaiñ - Urko Azpi - Usobide - Zatarrak - Zatiña - Zazpi Gazte - Zorionak
--	--	--	--

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO: publizitatea@etakitto.eus / 605711422

Bueltan dira 10 Kia Egunak.

Irailaren 12tik 23ra.



KIA
Movement that inspires

Hilean:

105 €/tik aurrera*

Sarrera: 7.838,25€

Azken kuota: 10.280,29€

Oporretatik itzultzea, ganorazkoa: teknologiak eman dezakeen guztia eskaintzen dizugu, baldintza benetan interesgarriekin.

Aprobetxatu 10 Kia egunak irailaren 12tik 23ra eta bisitatu gertuen duzun Kia kontzesionarioa.

KIA
NAIA CAR

📍 Apalategi, 1 EIBAR

☎ 943 70 70 33 🌱

gruponaiacar.com

WLTP CO₂ isuri konbinatuak (g/km): 121-159. WLTP kontsumo konbinatua (l/100 km): 5,0-7,0.* Finantzaketa adibidea Kia Stonic Concept-entzat 1.0 T-GDI MHEV 74 kW (100CV), Irukean ibilgailu bat entregatzen duen bezero partikularrentzat. PSP: 20.560,38€. Finantzaketaren prezioa: 18.648,98€. Sarrera: 7.838,25€. Finantzatutako zenbatekoa: 11.716,49€ (ordainketak babesteko aukerako aseguruia bane: 460,54 € eta % 3,95eko formalizazio-komisioa: 445,22 €). 105€-ko 47 kuota eta 10.280,29€-ko azken kuota. TIN: % 7,95eko UTBa: % 9,55. UTBaren kalkuluan finantzaketaren kostu gisa sartzen ez den aseguruia. Interesak guztira: 3.498,80€. Kredituaren kostua guztira: 3.944,02€. Zordundutako zenbatekoa guztira: 15.215,29 €. Prezioa epeka guztira: 23.053,54 €. Amortizazio-sistema frantsesa. Banco Cetelem SALekin finantzatu 2024-09-23ra arte. Ordainketak babesteko aseguruia bane hartzen da, honako estaldura hauekin: heriotza, ezintasun iraunkor absolutua, soldatapekerentzako langabezia, autonomoentzako jardura etetea eta ibilgailuaren galeria osoa, Cardiff Assurance Vie eta Cardiff Assurances Riques Divers aseguru-etxeekin kontratatuta. Espainako sukurtzailek, E-129 eta E-130 gakoarekin erregistratuak DGSFPren Erregistroan, hurrenez hurren, Banco Cetelem SALen bitartekaritzaekin (Banka Aseguruen Operadore Elkartua, Aseguru Bitartekariaren Erregistro Berezian inskribatua, GV-0046 gakoarekin). Erantzukizun Zibil Profesionaleko aseguruia da, eta finantza-gaitasunaren behetikina behetzen da. Estiduren aplikazioak polizaren baldintza orokorren eta partikularren mende daude. Kontsultatu Cetelem www.cetelem.es heguroso helbidean agentzia-kontrata sinatu duen aseguru-etxeak.



KIA NADAL
23 ANOS JUNTO